

Osasuneko zuzendari nagusia

Luis Gabilondo Pujol

Donostian jaio zen 1953an.

Nafarroako Unibertsitateko Medikuntzako eta Kirurgiako lizentziaduna da, eta Familiako Medikuntzako eta Medikuntza Komunitarioko espezializatea du. Horrez gain, diplomaduna da Osasun arloan eta Enpresen Goi Zuzendaritzako diplomaduna (IESE). Medikuntza Orokorreko sendagilea izan da Altsasun eta Lizarran.

Nafarroako Gobernuan, Osasun Plangintzaren Ataleko burua (Osasun Departamentua) izan da, eta beste kargu batzuk bete ditu Osasunbidean: Oinarrizko Osasun Laguntzako zuzendaria; kudeatzailearen albokoa eta Ospitale Laguntza Koordinatzeko zuzendariordea, bai eta Oinarrizko Osasun Laguntza Hobetzeko Planaren arduradun teknikoa eta Oinarrizko Osasun Laguntza eta Laguntza Espezializatua Koordinatzeko Planarena ere. Osasuneko zuzendari nagusi izendatu aurretik, Osasun Departamentuko Ikerketa, Berrikuntza eta Prestakuntzako zuzendaria zen.

Horrez gain, INSALUDEko probintziako zuzendaria izan da, Errioxako Osasuneko zuzendari nagusia eta Nafarroako Arartekoaren osasun arloko aholkularia.

Irakasle lanari dagokionez, nabarmendu beharra dago honakoetan aritu dela irakaskuntzan: Escuela Nacional de Sanidad, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko Goi mailako Zuzendaritza eta Administrazio Eskolan, Escola Galega de Administración Sanitaria (FEGAS) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko Erizaintza Eskolan.

Osasunaren Azterketa eta Ebaluzio Batzordeko Ekonomia Azpibatzerdeko kidea izan da (Abril Martorell txostena), Osasun Sistema Nazionaleko Lurraldearteko Kontseiluko Itxaron-zerrenden arloko Adituen Taldekoa, Centros de Salud aldizkariko erredakzio batzordekoa eta Jano aldizkariko Oinarrizko Osasun Laguntzako kontseilu editorialekoa.

2015eko abuztuan Osasuneko zuzendari nagusi izendatua.